* Argazkiak aurkezteko epea:

UZTAILAREN 18ra arte

OLAIZAGA Kiroldegian (943 744415).

Pk 32, 20870 ELGOIBAR.

* Sari banaketa: Abuztuaren 23an,

20:30etan PLENO ARETOAN.

* ERAKUSKETA Kultur Etxeko SOTOAN,

Abuztuaren 23tik 30era.

(19:00 - 21:00).

**MAILAK**

* Herriko saria
* Gazte saria: 35 urtera arte,
* Orokorra: 35 urtetik gorakoentzat
* OINARRIAK: www.elgoibar.org

# ELGOIBARKO

## Kirol ARGAZKIEN Lehiaketa



# ELGOIBARKO KIROL ARGAZKI LEHIAKETA

**ANTOLATZAILEA:** ELGOIBARKO UDALA(Gazteria Saila eta Udal Kirol Patronatua), Ongarri argazkilari elkartearekin lankidetzan.

**PARTEHARTZAILEAK:** Argazki lehiaketa honetan nahi duten zaletu guztiek har dezakete parte: edozein adinetako argazkilari zaletuek, profesionalek nahiz amateurrek.

**GAIA:** Kirola arlo guztietan.

**MODALITATEA:** Paperean egindako argazkiak, koloretan nahiz zuri beltzean. Irudiak tratatzeko edozein prozedura edo teknika onartuko da.

**AURKEZPENA:** Argazkien euskarria 30 X 40 zentimetrokoa izango da ezinbestean, eta kartulina finez eginikoa.
Euskarri horren barruko argazki-paperaren neurria 24 X 30 zentimetrokoa izango da.

**LANAK:** Egileek, gehienez, 4 argazki aurkez ditzakete. Lanek originalak beharko dute izan. Ezin dira aurkeztu beste lehiaketa batean saritutako lanak.

## MAILAK ETA SARIAK

1) HERRIKO SARIA: (Argazki hoberena); Adin guztietako elgoibartarrak, edo-eta bertan bizi direnak: 200 €

2) 35 URTERARTE:
35 urte bitarteko elgoibartarrak nahiz beste herriren batekoak.

1. Saria: 300€
2. Saria: 200€

3) SARI OROKORRA (35 urtetik gorakoentzat: elgoibartarrak nahiz beste herriren batekoak):

1. Saria: 300€
2. Saria: 200€

**LANEN IDENTIFIKAZIOA:** Argazki bakoitzaren atzean izenburua edo leloa bakarrik jarriko da.
Aurkeztutako argazki bakoitzarekin batera, kartazal bat emango da izenburu edo lelo bera duena.
Kartazal horren barruan lehiakidearen datuak jasoko dira; izen-deiturak, NANa, adina, helbide osoa eta telefono zenbakia.

**LANAK AURKEZTEKO EPEA ETA LEKUA:** Lanak eskura ekarri daitezke nahiz postaz bidali (bidalketa gastuak egilearen kontu).
Uztailaren 16rako aurkeztu beharko dira honako helbide honetan: Olaizaga kiroldegia, 32 posta kutxatila, San Roke kalea 1, 20870 Elgoibar.

**AUKERAKETA EGUNA:** Uztailaren 21a.

**EPAIMAHAIA:** Elgoibarko Udaleko lau ordezkari, Ongarri argazkilari elkarteko ordezkari bat eta kirolari bat.
Epaimahaiaren erabakia aldaezina da.

**SARI BANAKETA:** Abuztuak 23, arratsaldeko 8:30etan Pleno aretoan.

**ERAKUSKETA:** Lehiaketara aurkeztutako argazki guztiak edo epaimahaiak aukeratutakoak, abuztuaren 23tik 30era erakutsiko dira Kultur Etxeko sotoan.

**LANAK JASOTZEKO EPEA:** Argazki sarituak antolatzaileen esku geratuko dira, eta berauek izango dute argitaratzeko eskubidea, beti ere, egilearen izena aipatuz.
Saritu gabeko lanak jasotzeko epea irailaren 17tik 29ra bitartekoa izango da. Lanak Olaizaga kiroldegian jaso ahal izango dira.
Epe horren barruan jasotzen ez diren lanak antolatzaileen esku geratuko dira.

**ARGAZKIAK GALTZEA EDO LAPURTZEA:** Antolatzaileek hitz ematen dute argazkiak ondo zainduko dituztela, baina ez da beraien ardura izango bidean edo erakusketa egiten den bitartean galtzen edo hondatzen badira, edo lapurtzen badituzte.
Partaideek berea gain hartuko dute asegurua.

**OINARRIAK ONARTZEA:** Lehiaketa honetan parte hartzeko, oinarri hauek guztiak onartu beharko dira.